# Gipuzkoako Foru Aldundiak garapenerako lankidetzan jarduteko esparru estrategikoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak, duela hainbat legealdi garapenerako lankidetzaz arduraturik, beharrezkotzat jo du lankidetza indartzea eta erreferentzia-esparru bat ematea, eremu horretan burutuko duen jarduera bideratzeko. Erreferentzia-esparru horren beharra lotuta dago, halaber, **GFAren 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoak** oinarrian dituen funtsezko printzipioetako birekin, alegia: **elkartasunarekin eta erantzukizunarekin**.

Esparru estrategiko hori, gainera, zimendua izatea nahi dugu, GFAn sustatzen diren jarduketa guztien oinarria, logika barreiatuak saihestuz eta, aldi berean, horien guztien arteko sinergia sortzen saiatuz, bai Aldundiak berak gidaturik, bai beste erakunde eta entitate batzuekin egindako hitzarmenen bidez, edo baita dirulaguntzen deialdien bidez finantzaturik ere.

Gure abiagunea bizitzen ari garen unearen konplexutasuna eta garapenerako lankidetzaren etorkizunari buruz dauden zalantzak onartzea da. Gizateriak aurre egin behar dien arazo larriei heldu ahal izateko –giza pobrezia eta gabetasuna, desberdintasun gero eta handiagoak, ingurumenaren iraunkortasunik eza, indarkeria handitzea, babesa bilatzen duten pertsonen kopurua handitzea, etab.–, beharrezkoa da erakundeen benetako konpromiso politiko eta finantzarioa.

# Marco estratégico de actuación de la cooperación al desarrollo de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La Diputación Foral de Gipuzkoa, comprometida desde hace varias legislaturas con la cooperación para el desarrollo, considera necesario fortalecer la misma así como dotarla de un marco de referencia que sirva para orientar su actuación en este terreno. La necesidad de este marco de referencia enlaza, además, con dos de los principios básicos en los que se fundamenta el **Plan Estratégico de Gestión de la DFG para el período 2015-2019**, como son los de **solidaridad y responsabilidad**.

Este Marco Estratégico pretende además ser el cimiento en el que se basen el conjunto de las actuaciones impulsadas desde la DFG evitando lógicas dispersas y buscando al mismo tiempo la generación de sinergias entre todas ellas, ya sean lideradas por la propia Diputación, conveniadas con otras instituciones y entidades, o financiadas en base a convocatorias de subvenciones.

Partimos del reconocimiento de la gran complejidad de los momentos que vivimos y de las dudas existentes sobre el futuro de la cooperación al desarrollo. Los graves problemas que enfrenta la humanidad –pobreza y privación humana, desigualdades crecientes, insostenibilidad medioambiental, aumento de la violencia y de las personas que buscan refugio, etc.-, requieren un importante compromiso político y financiero de las instituciones para hacer frente a los mismos.

Hala eta guztiz ere, azkeneko hamarkadetan, gure gizarteak larritzen dituzten zailtasun eta arazoen ondorioz eta, horiekin batera, elkartasunezko balioen atzerakadaren, ideia indibidualisten goraldiaren eta xenofobia areagotzearen ondorioz, lankidetza-politikek indarra galdu dute, gizartean duten errotzea azalekoago bilakaturik, eta, hala bada, beren indar politikoa ahulagotu eta aurrekontu-esleipena txikiagotu egin da, gizartearen beste premia eta aldarrikapen batzuekin alderatuta.

Beharrezkoa da joera horiek leheneratzea eta elkartasunezko ideien garrantzia nahiz garapenerako lankidetza-politiken eginkizuna berreskuratzea; eta horretarako, besteak beste, erakunde publikook horien finantzaziora zuzendutako aurrekontu-esleipenak mantendu behar ditugu eta, ahal dela, handitu. Baina, gainera, hori gertatzearen zain egon gabe, garapenerako lankidetzaren orientazioa berraztertu eta eguneratu behar dugu, erronka jakin batzuei aurre egiteko, eta Gipuzkoako lankidetza publikoa duela ia hiru hamarkada lehen urratsak egiten hasi zenean geneukan egoeraren antzik ez duen egungo testuinguruari aurre egin ahal izateko. Garapenerako lankidetzaren indarra eta errotze soziala berreskuratuz soilik, gizarte konprometituago eta mobilizatuagotik soilik, lortu ahal izango dugu lankidetzak behar duen garrantzi politikoa izatea, eta hori lagungarria izango da bere finantzazioa modu iraunkorrean handitzeko.

Horri guztiari jarraituz, esparru estrategiko honen bidez, Gipuzkoaren lankidetza kokatu nahi dugu garapenerako lankidetzari dagokionez une honetan nazioarteko espazioan mahaigaineratzen ari diren eztabaiden eta erronken testuinguruan. Eta, aldi berean,

Sin embargo, en las últimas décadas, las dificultades y problemas que atenazan a nuestras sociedades, unidas al retroceso de los valores solidarios, el auge de las ideas individualistas, y al aumento de la xenofobia en, han hecho que las políticas de cooperación al desarrollo hayan perdido vigor y tengan menor arraigo social, lo cual se ha traducido también en su menor peso político y en la menor dotación presupuestaria frente a otras necesidades y reclamaciones de la sociedad.

Es necesario revertir estas tendencias y recuperar el peso de las ideas solidarias y el papel de las políticas de cooperación al desarrollo, lo cual requiere, entre otras cosas, que las instituciones públicas mantengamos –e incrementemos en la medida de lo posible- las dotaciones presupuestarias para su financiación. Pero además –y sin esperar a que ello se produzca- es preciso replantear la orientación de la cooperación al desarrollo y actualizar la misma para poder hacer frente a unos retos y un contexto que en nada se parece al que existía cuando, hace casi tres décadas, la cooperación pública guipuzcoana comenzó a dar sus primeros pasos. Sólo recuperando el vigor y el arraigo social de la cooperación al desarrollo; sólo desde una sociedad más comprometida y movilizada, será posible que aquella tenga el peso político que le corresponde, lo que sin duda contribuirá a un aumento sostenido de su financiación.

De acuerdo a todo ello, el presente Marco Estratégico pretende situar la cooperación guipuzcoana en el contexto de los debates y los retos que para la cooperación al desarrollo se plantean en estos momentos en el ámbito internacional. Y, al mismo tiempo, trata de mejorar su funcionamiento desde la experiencia acumulada a lo largo

lankidetzaren funtzionamendua hobetu nahi dugu urteen poderioz metatu dugun eskarmentuaz baliatuta, eraginkortasuna, koherentzia eta egiazko eragina handitzearren, bai Gipuzkoako Lurraldearen barruan, bai lurraldetik kanpo.

Ondorio horietarako, testu hau bi multzotan bereizi dugu. Alde batetik, GFAren lankidetza-politikaren oinarri diren erreferentziak azalduko ditugu, Garapen Iraunkorreko Helburuetan (GIH) eta Agenda 2030ean nahiz Agendatik eratorritako ondorioetan zehazturik. Eta bestetik, aipatutako lankidetza-politikak dituen jardun-ildoak eta oinarri zehatzak azalduko ditugu.

## 1. Gure erreferentziak: Agenda 2030 eta GIHak

Gipuzkoako Aldundiak alor honetan egin beharreko jardueren artean, ezin ditu baztertu nazioarteko esparruan proposatzen ari den garapenerako lankidetzaren erronka berriak; erronka horiek berriki gorpuztu dira **nazioarteko komunitatearen ahaleginak 2030 urtera arte gidatuko dituzten Garapen Iraunkorreko Helburuak** onartzen dituen NBEren Ebazpenean.

### 1.1. Agenda berriaren ezaugarri nagusiak

Gure aburuz, agenda berria landu eta onartzeak, nahiz eta agenda gauzatzeko beharrezkoak diren baliabide eta tresnen definizioan mugatuta egon, oso garrantzitsua den diagnostikoa ematen du,

de los años, para así incrementar su eficiencia, coherencia e impacto real tanto dentro como fuera del territorio de Gipuzkoa.

A estos efectos, el presente texto se divide en dos bloques. Por un lado, se plantean las referencias que inspiran la política de cooperación de la DFG, concretadas en los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) y la Agenda 2030, y en las consecuencias que de ella se derivan. Y, en segundo lugar, se exponen las líneas de actuación y las bases concretas sobre las que se asienta dicha política de cooperación.

## 1. Nuestras referencias: La Agenda 2030 y los ODS

La actuación de la Diputación de Gipuzkoa en esta materia no puede ser ajena a los nuevos retos que la cooperación al desarrollo está planteándose en el ámbito internacional, los cuales se han plasmado recientemente en la Resolución de las NN.UU. por la que se aprueban los **Objetivos de Desarrollo Sostenible que habrán de guiar los esfuerzos de la comunidad internacional hasta el año 2030**.

### 1.1. Aspectos principales de la nueva Agenda

Consideramos que la elaboración y la aprobación de la nueva agenda, pese a sus limitaciones en la definición de los medios e instrumentos necesarios para su ejecución, aporta un diagnóstico de gran relevancia para entender los problemas en

une bakoitzean ditugun arazoak ulertu eta garapenerako lankidetzak dituen erronka nagusiak zehazteko.

presencia y señalar los principales retos a los que se enfrenta la cooperación para el desarrollo.

Lehenik eta behin, GIHetatik ondorioztatzen diren garapenaren erronkek berekin dakarte **agenda unibertsala** ezartzea, herrialde eta lurralde guztiak agenda horrekin konprometitzea, eta herrialde eta lurralde horiek guztiek agenda horretan barne- eta kanpo-betebeharrak eta erantzukizunak izatea. Horren ondorioz, azken hamarkadetan garapenerako lankidetzaren oinarria izan den Iparra-Hegoa ikuspegia gainditu behar da, eta horren ordez ikuspegi globalago batez baliatu.

En primer lugar, los retos del desarrollo que se derivan de los ODS suponen la adopción de una **agenda universal,** con la que todos los países y todos los territorios se encuentran comprometidos, y en la que todos ellos tienen deberes y responsabilidades internas y externas. Ello supone la necesidad de superar la visión Norte-Sur que ha fundamentado la cooperación al desarrollo durante las últimas décadas, sustituyéndola por un enfoque global.

Bigarrenez, eta Milurtekoaren Garapen Helburuekin (MGH) gertatzen zenaz bestela, GIHen agenda berriak **lotura bereizezina** ezartzen du **pobreziaren aurkako borrokaren eta ekitate- eta iraunkortasun-helburuen artean.** Horrek berekin du onartzea ezin direla mahaigaineratu pertsonen gabetasuna arintzera bideratutako helburuak, baldin eta aldi berean bi alderdi horiek kontuan hartzen ez badira, pobreziari sakonki lotuta baitaude bai kausei, bai ondorioei dagokienean.

En segundo término, y a diferencia de lo que ocurría con los Objetivos de Desarrollo del Milenio (ODM), la nueva agenda de los ODS establece un **vínculo indisoluble entre la lucha contra la pobreza y los objetivos de la equidad y la sostenibilidad**. Ello supone el reconocimiento de que no pueden plantearse objetivos orientados a paliar la privación de las personas sin atender a la vez a estas otras dos cuestiones, las cuales se encuentran íntimamente unidas – en sus causas y en sus consecuencias- a la pobreza.

Beste alde batetik, GIHen oinarria den adierazpenak irmotasunez finkatu du sinatzen dutenen konpromisoa: **gure gizarteek ondasunak eta zerbitzuak ekoitzi eta kontsumitzen dituzten moduan funtsezko aldaketak** egitea. Hala bada, bertan adierazten da gobernuek, nazioarteko erakundeek, enpresa-

Por otra parte, la declaración sobre la que descansan los ODS establece con rotundidad el compromiso de los firmantes a efectuar **cambios fundamentales en la manera en que nuestras sociedades producen y consumen bienes y servicios**. En ese sentido, se señala que los gobiernos, las organizaciones internacionales, el sector empresarial y otros agentes no estatales y particulares

sektoreak eta estatuz kanpokoak eta partikularrak diren beste eragile batzuek iraunkorrak ez diren kontsumo eta ekoizpen moduak aldatzen lagundu behar dutela, etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko.

Laugarrenez, onartu egin da, halaber, funtsezko garrantzia duela **Giza Eskubideak eta giza duintasuna** nahiz zuzenbidezko estatua, justizia, berdintasuna eta diskriminaziorik eza **errespetatzeak.** Ildo horretan, pertsonen jatorri etnikoaren errespetua eta kultura-aniztasuna defendatzea eskatzen da, eta aukera-berdintasuna esparru guztietan defendatzea; halaber, emakumeen jabekuntza era aktiboan sustatzeko beharra nabarmentzen da, giza potentziala osorik gauzatu ahal izateko eta oparotasun partekatua lortzen laguntzeko.

Azkenik, Agenda 2030 berrian jasotako 17 helburuek eta 169 jomugek **garapenaren arazoen irakurketa askoz ere osoagoa eta barnerakorragoa** eratu dute, eta lehenagoko proposamenen ikuspegi zatituagoak gainditu dituzte, hau da, arreta herrialde pobreenetan soilik jartzen zutenak, aberatsagoak diren herrialde eta lurraldeetan zabaldutako politikak eta politika horiek aipatutako arazoetan duten eragina kontuan hartu gabe.

Horren guztiaren ondorioz, Agenda 2030 berriak berekin dakar **aldaketa esanguratsua garapen-estrategiak eta lankidetza-politikak ulertzeko orduan**; izan ere, ezin dira jadanik proposatu laguntza edo baliabideen aukerako

deben contribuir a modificar las modalidades insostenibles de consumo y producción para poder hacer frente a los retos del futuro.

En cuarto lugar, se reconoce asimismo la importancia fundamental del **respeto a los Derechos Humanos y a la dignidad humana,** así como al estado de derecho, la justicia, la igualdad y la no discriminación. En ese sentido, se reclama el respeto al origen étnico de las personas y la defensa de la diversidad cultural, propugnándose la igualdad de oportunidades en todos los ámbitos, destacando la necesidad de promover activamente el empoderamiento de las mujeres, para que pueda realizarse plenamente el potencial humano y para contribuir a una prosperidad compartida.

Finalmente, los 17 objetivos y 169 metas contenidas en la nueva agenda 2030 representan una **lectura mucho más integral y comprehensiva de los problemas del desarrollo,** superando las visiones compartimentadas de anteriores propuestas y que centraban la atención únicamente en los países más pobres, sin atender a las políticas desplegadas por los países y territorios más ricos y su incidencia en dichos problemas.

Como consecuencia de todo lo anterior, la nueva agenda 2030 supone un **cambio significativo en la concepción de las estrategias de desarrollo y las políticas de cooperación,** las cuales ya no pueden ser planteadas únicamente en forma de ayuda o de transferencia discrecional de

transferentzia bezala, edo Iparra-Hegoa moduan, aitzitik, gizateria osoak partekatzen dituen arazoen aurreko konpromiso global bezala ulertu behar dira, nahiz eta arazo horiek askotariko adierazpenak eta eraginak izan leku batzuetan edo besteetan, eta baita intentsitate desberdinez azaldu ere. Horiek horrela, kasu handiagoa eman beharko litzaieke bestelako lankidetza-mekanismoei, hala nola ondasun publiko globalen kudeaketarekin zerikusia dutenei, merkataritza-arauei, finantza-sistemaren arauketari, edo nazioarteko zerga-sistemari eta paradisu fiskalen kontrolari.

recursos, ni en clave Norte-Sur, sino como un compromiso global con problemas que son comunes a toda la humanidad, aunque se manifiesten e incidan de manera diversa y con distinta intensidad en unos y otros lugares. En este sentido, ello debería implicar una mayor atención a otros mecanismos de cooperación como pueden ser los relacionados con la gestión de los bienes públicos globales, las reglas comerciales, la regulación del sistema financiero, o la fiscalidad internacional y el control de los paraísos fiscales.

Agenda berrian proposatutako erronkek jardun-esparru guztietan dute eragina, esparru globalean hasi eta tokiko esparruan bukatuz, eta, ondorioz, administrazio mota desberdinei dagozkie, lurralde-izaerakoak barne, eta horien artean, GFAri.

Los retos planteados en la nueva agenda afectan a todos los ámbitos de actuación, desde lo global hasta lo local, por lo que conciernen a distintos tipos de administraciones incluidas las de carácter territorial como es el caso de la DFG.

## 1.2. Agenda berriaren inplikazioak

Lehen adierazi dugun bezala, Agenda 2030 berrian sartu diren proposamenek eta GIHak gauzatzeak badituzte inplikazio garrantzitsuak lankidetzaren etorkizunerako eta lankidetzari lotutako estrategietarako. Horietako batzuk bereziki aipagarriak dira, eta badute eragina erakunde mota batzuen edo besteen politikan –d GFA barne–. Inplikazio horien artean, ondorengoak daude:

## 1.2. Implicaciones de la nueva agenda

Las propuestas que incorpora la nueva agenda 2030 y la formulación de los ODS tienen, como ya se ha señalado, implicaciones importantes para el futuro de la cooperación y las estrategias asociadas a la misma. Algunas de ellas son especialmente relevantes y afectan a la política de unos y otros tipos de instituciones, incluida la DFG. Entre ellas se encuentran las siguientes:

**a. Lankidetza azpiestatalaren garrantzi berria**

**a. La nueva relevancia de la cooperación subestatal**

Garapenerako agenda berriak agerian utzi du hainbat esparrutan burutu diren politiken garrantzia, eta horrek eragina du, halaber, lankidetza azpiestatalean eta bere berariazkotasunean. **Tokiko eta lurraldeetako administrazioen garrantzia eta Agenda 2030ean nahiz GIHetan izandako aurrerakuntzari administrazioek egin dizkioten ekarpenen garrantzia** ez da soilik adierazpenaren izpirituaren eta letraren ondorio. Garrantzi hori adierazi eta agerian jarri da hainbat forotan, eta bereziki Tokiko eta Eskualdeetako Gobernuen Lan Globaleko Taldeak (Global Taskforce) 2015 ondoko Agendari begira hartu duen jarreran. Izan ere, besteak beste, tokiko gobernantzaren garrantzia eta tokiko zein eskualdeko gobernu autonomo eta demokratikoak, parte-hartzaileak, eraginkorrak, gardenak eta baliabideez hornituak izateko beharra nabarmendu dira.

La nueva agenda de desarrollo pone de manifiesto la importancia de las políticas llevadas a cabo en distintos niveles, lo que afecta también a la cooperación subsestatal y su especificidad. La **importancia de las administraciones locales y territoriales y de su contribución a la Agenda 2030 y al avance en los ODS** no solo se desprende del espíritu y la letra de la declaración. La misma ha sido también señalada y puesta de manifiesto en diferentes foros y muy especialmente en la posición adoptada por el Grupo de Trabajo Global de Gobiernos Locales y Regionales de cara a la Agenda post-2015 (Global Taskforce), en la que se subrayan, entre otros, la importancia de la gobernanza local y la necesidad de contar con gobiernos locales y regionales autónomos y democráticos, participativos, eficaces, transparentes, y dotados de recursos.

Jarrera hartze horretan, halaber, **tokiko garapen ekonomikoaren garrantzia** azaldu da, eta, hala, kontsumo eta ekoizpen iraunkorrak sustatu dira eta, aldi berean, giza eskubideen defentsa, genero-berdintasunaren sustapena, kultura-aniztasuna eta bazterkeria mota guztien intolerantzia eskatu dira.

En dicha toma de posición se plantea asimismo la **importancia del desarrollo económico local**, promoviendo el consumo y la producción sostenibles, reclamándose al mismo tiempo la defensa de los derechos humanos, la promoción de la igualdad de género, la diversidad cultural, y la intolerancia hacia toda forma de discriminación.

Tokiko Gobernuen eta Gobernu Azpinazionalen Goi Mailako Taldeak – aipatutako Global Taskforceren barruan egon denak– agerian jarri du tokiko eta eskualdeko gobernuek agenda berrian duten eginkizun gero eta nabarmenagoa, eta baita **munduaren, estatuaren eta**

Por su parte, el Panel de Alto Nivel de los Gobiernos Locales y Subnacionales -que ha formado parte del mencionado Global Taskforce- ha señalado no solo el papel creciente de los gobiernos locales y regionales en la nueva agenda, sino también la necesidad de una **mayor coherencia de políticas en los planos mundial, estatal y subestatal,**

**azpiestatuaren esparruetan politiken koherentzia handiagoa**ren beharra ere; era berean, partekatutako erantzukizunak definitu dira eta, halaber, ikuspegi orekatuago bat, gobernu-maila guztien eta garapeneko kide guztien artean.

definiéndose responsabilidades compartidas y un enfoque más equilibrado entre todos los niveles de gobierno y socios de desarrollo.

Lankidetza maila desberdinetan gauzatzeak duen garrantzi berri horrek agerian jarri du **lankidetza azpiestatalean** aritzeko berezko eta berariazko jarraibideak ezartzeko beharra. Izan ere, lankidetza hori **ezin da egituratu lankidetza estatalaren edo multilateralaren eskala txikiko kopia bezala**, ezta haren logika eta tresnak erreproduzitzen saiatu ere. Aitzitik, tokiko eta lurraldeko erakundeen arteko lankidetzak –eta gure kasuan, GFAk bultzatutakoak– jardun-esparru zehatza sustatu behar du, gaitasunak eta ahalmenak ahalik eta gehien baliatuz, ahalegin osagarri beharrezkoen barruan.

Esta nueva relevancia de la cooperación en distintos niveles pone de manifiesto la necesidad de establecer pautas propias y específicas de **la cooperación subestatal**, la cual **no puede plantearse como una réplica a pequeña escala de la cooperación en el ámbito estatal o multilateral**, tratando de reproducir su lógica y sus instrumentos. Por el contrario, la cooperación de las entidades locales y territoriales –y en nuestro caso la impulsada desde la DFG- debe propiciar un marco específico de actuación, aprovechando al máximo sus capacidades y potencialidades, dentro de la necesaria complementariedad de esfuerzos.

**b. Garapen-politiken koherentzia, estrategiaren gakoa**

**Garapen Politiken Koherentzia (GPK)**, 90eko hamarkadaren erdialdean halakotzat aldarrikatzen hasi zena, ezin baztertuzko elementu bilakatu da GIHekin eta Agenda 2030 berriarekin. Helburu horietarantz aurreratzea ezinezkoa da jadanik **osoko ikuspegirik** gabe, eta, hala, elkartasuna biztanleria multzorik ahulenekin –laguntza-programen eta baliabideen transferentziaren bidez– ikuspuntu zabalago eta osatuago baten baitan kokatu beharko da ezinbestean, administrazio guztien politika publiko

**b. La coherencia de políticas de desarrollo clave de la estrategia**

La **Coherencia de Políticas de Desarrollo (CPD),** que comenzó a ser reclamada como tal a mediados de los años 90, se convierte en un elemento insoslayable con los ODS y la nueva Agenda 2030. El avance hacia dichos objetivos ya no es posible sin un **enfoque integral** en el que la solidaridad con los sectores de población más desfavorecidos, mediante programas de ayuda y transferencia de recursos, necesariamente deberá enmarcare en un planteamiento más amplio e integral, que abarque al conjunto de políticas públicas de las distintas administraciones.

guztiak barnean harturik.

Garapen-politiken koherentzia, hasiera batean, Iparra-Hegoa edo emaile-jasotzaile erako logika zorrotzaren barruan lankidetzaren helburuen aurkako jarduerak ez egiteko behar moduan ulertu baldin bazen ere, **Agenda 2030ek eta GIHek estrategia osoaren euskarri bilakatu dute objektiboki GPK.** Izan ere, Agendan jaso diren erronkak laguntzaz edo baliabideen transferentzia beharrezkoaz harago doaz, eta, aitzitik, osoko ikuspegia behar da, lankidetza-politika garapenean eragina duten politika guztien multzoaren baitan kokatzeko.

Si la Coherencia de Políticas de Desarrollo fue inicialmente concebida como una necesidad para no realizar actuaciones contrarias a los objetivos de la cooperación dentro de una estricta lógica Norte-Sur, o donante-receptor, **la agenda 2030 y los ODS convierten objetivamente a la CPD en una piedra angular de toda la estrategia**. En efecto, los retos planteados en dicha agenda van mucho más allá de la ayuda o la necesaria transferencia de recursos, requiriéndose por el contrario un enfoque integral en el que la política de cooperación debe enmarcarse en el conjunto de políticas que inciden en el desarrollo.

GPKren garrantziak eragina du Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetza-politikan, eta zehazki politika horren hiru alderditan: lehenik eta behin, **ondorio hauek dituzten politikak abian jar daitezen saihestea:** behartsuen diren pertsonengan eragin negatiboa dutenak, giza eskubideak urratzen dituztenak, iraunkortasunari kalte egiten diotenak, edo desberdintasunak handitzea dakartenak, bai Gipuzkoako lurraldean, bai beste edozein lekutan. Bigarrenez, GIHen aldeko **sinergiak sortzea GFAren politika guztien artean**, lankidetza-politika departamentu guztietako estrategiei lotuz, eta estrategia horietan garapenaren eta elkartasunaren ikuspegia sartzea bultzatuz. Eta hirugarrenez, **erakundeen arteko elkarrizketa eta lana** sustatzea, lankidetza eta ahaleginen osagarritasuna handitzearren, GIHak lortzeko bidean.

La importancia de la CPD afecta a la política de cooperación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, incidiendo en tres aspectos de la misma: En primer lugar, **evitar la puesta en marcha de políticas que afecten negativamente** a las personas más desfavorecidas, vulneren los derechos humanos, dañen la sostenibilidad, o contribuyan a aumentar las desigualdades, tanto en el territorio guipuzcoano como en cualquier otro lugar. En segundo término, **generar sinergias entre las diferentes políticas de la DFG** en pro de los ODS, vinculando la política de cooperación con las estrategias de los distintos departamentos, impulsando la integración en las mismas de la perspectiva del desarrollo y la solidaridad. Y en tercer lugar, favoreciendo **el diálogo y el trabajo interinstitucional** al objeto de incrementar la coordinación y la complementariedad de esfuerzos en el avance hacia los ODS.

**c. Herritartasun Globalerako**

**c. La importancia de la Educación**

**Hezkuntzaren garrantzia**

2015 ondoko Agenda berriak erakunde guztien eta gizarte guztien konpromisoa eskatzen du, ezin baztertuzko zerbait bezala, une bakoitzeko erronkei buru egin ahal izateko. Orain arte, Garapenerako Hezkuntza edo Herritartasun Globalerako Hezkuntza kontuan hartu izan dira, batik bat, gizartea kontzientziatzeari lotuta, erakundeek edo GGKEek burutzen zituzten lankidetza-ahaleginei gizartearen babesa handitzeko.

Hala ere, GIHen eta Agenda 2030en ondorioa den ikuspegi berriak Herritartasun Globalerako Hezkuntzaren ikuskera zabalagoa eskatzen du, gizarteak une bakoitzeko erronka berriei aurre egiteko dituen ezagutzan, arduran eta konpromisoan eraginda. Kezka horietatik abiatuta, uste dugu **elkartasunerako eta herritartasun globalerako hezkuntza** ideien eta balioen eskualdaketaren bidez nahiz norberaren esperientzia bakartiaren bidez gauzatu behar dela. Horregatik, eta helburu horiek lortzera begira, beharrezkoa da hezkuntzaren alorrean egiten diren jarduerak nahiz informazio-, hedapen- eta sentikortze-jarduerak babestea, eta baita gizarte-sektore eta -erakunde berriek elkartasunezko lanean parte hartzera bideratuta daudenak ere.

Eratzen ari den gertaleku berrian, hezkuntzaren arloko lana bereziki garrantzitsua da gipuzkoar gizarte justuagoa eta solidarioagoa sortzeko. Ondorioz, lankidetza-politika, arazo zehatzak arindu edo garapen-prozesuak

**para la Ciudadanía Global**

La nueva Agenda post2015 reclama como algo insoslayable el compromiso de todas las instituciones y de todas sociedades para poder hacer frente a los retos en presencia. Hasta el momento, la Educación para el Desarrollo o Educación para la Ciudadanía Global, habían sido consideradas principalmente en su vertiente de concienciación de la sociedad para incrementar el apoyo de la misma a los esfuerzos de cooperación llevados a cabo por instituciones u ONGD.

Sin embargo, la nueva perspectiva que se deriva de los ODS y la Agenda 2030 reclama una concepción más amplia de la Educación para la Ciudadanía Global que incida en el conocimiento, la responsabilidad, y el compromiso de la sociedad para enfrentar los nuevos retos en presencia. Partiendo de estas preocupaciones, entendemos que el impulso de la **Educación en la solidaridad y para la ciudadanía global** debe plantearse tanto mediante la transmisión de ideas y valores, como desde la propia experiencia solidaria. Por ello, y de cara a esos objetivos, es preciso apoyar tanto las actuaciones en el ámbito educativo, como las actividades de información, divulgación y sensibilización, y también las encaminadas a incorporar a nuevos sectores y organizaciones sociales al trabajo solidario.

En el nuevo escenario que se dibuja, el trabajo en el ámbito educativo es especialmente relevante para construir una sociedad guipuzcoana más justa y más solidaria. En consecuencia, la política de cooperación, más allá de su contribución a paliar problemas específicos o favorecer procesos de desarrollo, debería ser un pilar

bultzatzeaz haraindi, euskarria izan beharko litzateke **Gipuzkoa jakitunago, arduratsuago eta sozialki konprometituagorantz** aurrera egiteko. Zentzu horretan ere, uste dugu **kulturaren esparruak garrantzi berezia hartzen duela** elkartasunezko ideiak, giza eskubideak eta gizarte-bizikidetza sustatzeko orduan, eta, hortaz, arlo horretan egiten den lana lankidetza-politikaren alderdi garrantzitsua da.

a la hora de avanzar hacia **una Gipuzkoa más consciente, responsable y socialmente comprometida.** En ese mismo sentido, entendemos que **el ámbito de la cultura adquiere una especial relevancia** a la hora de promover las ideas solidarias, los derechos humanos y la convivencia social, por lo que el trabajo en este campo constituye un aspecto importante de la política de cooperación.

### d. Lankidetzaren eta elkartasunaren eremua handitzeko beharra

Herritartasun Globalerako Hezkuntzari eta gizarteak garapenaren arazoen aurrean izan beharreko konpromisoari buruz gorago jasotako hausnarketen ildotik, Agenda 2030 berrian agerian jarri da ezin dela lankidetza adituen kontutzat jotzen jarraitu, eta gizarte-erakunde eta -eragile guztiei dagokien arazoa dela. Hori horrela, erronka bat sortu da, alegia, eragile berriak elkartasunezko lanean txertatu eta lankidetzarako gizarte-oinarria handitzea.

Egungo egoeran, adierazitako arazoei benetan aurre egiten saiatzen den lankidetzan aritzeko oso bestelakoak diren ahaleginak batu behar dira. Alde batetik, hori ezinbestekoa delako garapen-politikak koherenteak izan daitezen, bestela lankidetzan adituak diren eragileen estrategiek hartutako norabideak gainerako gizarte-erakunde eta -eragileek erabilitakoez bestelakoak izan litezke. Eta bestetik, eraginkortasunaren irizpidetik begiratuta, mahaigaineratutako erronken

### d. La necesidad de ampliar el campo de la cooperación y la solidaridad

En línea con las anteriores reflexiones -referidas a la Educación para la Ciudadanía Global y el compromiso de la sociedad para con los problemas del desarrollo-, la nueva agenda 2030 pone de manifiesto que la cooperación no puede seguir considerándose como un asunto de especialistas, sino como algo que concierne al conjunto de instituciones y agentes sociales. Ello plantea el reto de incorporara a nuevos actores al trabajo solidario y de ampliar la base social de la cooperación.

En las actuales circunstancias, una cooperación para el desarrollo que trate realmente de hacer frente a los problemas señalados, requiere el concurso de muy diferentes esfuerzos. Por un lado, porque ello es indispensable para la coherencia de políticas de desarrollo, ya que de lo contrario, las estrategias de los agentes especializados en cooperación podrían ir en direcciones distintas a las desplegadas por el resto de instituciones y agentes sociales. Y por otra parte porque, desde un criterio de eficiencia, la envergadura y la diversidad de los retos planteados aconseja contar con los recursos

garrantzia eta aniztasuna kontuan hatuz, gomendagarria delako oso desberdinak diren esparru publiko eta pribatuetan dauden baliabideak erabiltzea.

existentes en muy diversos ámbitos públicos y privados.

Edonola ere, ez gara zerotik hasi, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetza-politikak elkartasunezko ibilbide luzea egin baitu, orain zabaldu eta indartu nahi duguna. Ildo horretan, kontuan izan behar dugu **Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeek (GGKE) bete izan duten eginkizuna erabakigarria dela**, izan ere ardura handia dute elkartasunaren eremua beste gizarte-erakunde, -entitate eta -sektore batzuetara zabaltzeko orduan, GGKEen trebetasunaz eta denboraren poderioz eskuratu duten esperientziaz balia daitezen.

De cualquier modo, no partimos de cero, ya que la política de cooperación de la Diputación Foral de Gipuzkoa tiene una larga trayectoria solidaria que se trata ahora de ampliar y fortalecer. En ese sentido, es preciso tener en cuenta el **papel decisivo que han venido jugando las Organizaciones No Gubernamentales de Desarrollo (ONGD)**, a las cuales les corresponde una importante responsabilidad a la hora de ensanchar el campo de la solidaridad hacia otras organizaciones, entidades, y sectores sociales, de modo que estas puedan beneficiarse del saber hacer y de la experiencia acumulada a lo largo del tiempo por las ONGD.

Adierazi behar dugu, halaber, eremua nazioarteko elkartasunari irekitzea **lankidetza-politika gizartean legezkotzeko** bide garrantzitsua ere badela, areago elkartasunezko konpromisoaren aurreko hozkeriak beste garai batean mobilizatuago zeuden gizarte-sektore askori kalte egin dien une honetan.

Es preciso señalar asimismo que la ampliación del campo de la solidaridad internacional es también una importante vía para **legitimar socialmente la política de cooperación**, máxime en un momento en el que la desafección hacia el compromiso solidario ha hecho mella en diversos sectores de la sociedad que en otros momentos se encontraban más movilizados.

## 2. GFAren lankidetzaren elementu nagusiak

Aurreko atalean adierazitako erreferentziekin eta helburuekin bat, GFAk osoko lankidetza-eredua sustatuko du, hain zuzen ere lurraldean dauden gaitasunez baliatzeko gauza dena, elkartasun-joera eta -adierazpen guztiak barneratzen dituena, herritarren eta gizarte-erakunde

## 2. Elementos principales de la cooperación de la DFG

